

Plisti-plasta, gustura

Uraren Eguna
egin dute
San Joan
eskolan ▶ 5



Harpidedunei banatua ▶ Larunbata ▶ 2006-06-10 ▶ IV. urtea ▶ 908. zenbakia ▶ www.tolosaldeko.hitza.info

Munduko talderik onenak Europako Sari Nagusian

TOLOSA ▶ Hilaren 17an jokatu
da XVII. Abesbatzen Europako
Sari Nagusia Usabal kiroldegian

TALDEAK ▶ Sei abesbatza lehiatuko
dira; Norvegiako Schola Cantorum
taldeak ordezkatu du Tolosa ▶ 2



Ezker-eskuin: Imanol Agote, Jesus Mari Alkain, Ana Arretxe eta Jokin Bildarratz, atzo, Donostian, Sari Nagusiaren aurkezpenean. E. EZEIZA

ARESO ▶

680 kiloko azken saio puntuagarria du Aresok

Euskal Herriko Lur
Gaineko Sokatira
Txapelketan ari da ▶ 7

HERNIALDE ▶

Gregorio Lopez magolanak ▶ 4

JUANTXO ZEBERIO ▶
MUSIKARIA



HITZA

«Jendeak ametsetara hegan egitea lortuko dugu»

San Joan Kontzertua
zuzenduko du gaur
Zumardi Handian ▶ 3

IBARRA ▶

Alurr, dantza saioz blai udan ▶ 6



Elbarri eta 3. adin-erako
bilatzen zenuen guztia!

- Gurpil-aulki elektrikoak
- Gurpil-aulki manualak
- Garabi elektrikoak
- Eskailerak igotzeko aparatuak
- Ohe artikulatua elektrikoak
- Bainurako laguntza teknikoak
- 3. adinerako materiala
- OSAKIDETZA-rekin hitzarmena
- Mantenimendu TAILERRA
- ALOKAIURU zerbitzua



Laskibar Industrialdea 19 Pab. 3-01 20270 IRURA
Tel.: 943 69 22 65 · Faxa: 943 69 43 89 www.mikelan.com
posta eletronikoa: mikelan@mikelan.com

ORENDAIN ▶

Gipuzkoako Seg Txapelketako finalerdia jokoan izango da bihar

Andoni Zuriarrain amasarra eta
Joxe Gabirondo eta Andoni Goikoetxea
gazteluarrak izango dira nor baino nor

Zubeltzu baserriaren ondoko zelaietan
jardun beharko dute, 30 minutuz ▶ 5

KULTURA ▶

Munduko abesbatzarik onenak Usabalen izango dira entzungai, hilaren 17an

Bost estatu ordezkatzuz, sei taldek hartuko dute parte XVIII. Abesbatzen Europako Sari Nagusia, Nestor Basterretxearen trofeoa irabazteko asmoz

ESTI EZEIZA

Hilaren 17an, 17:00etatik aurrera, Tolosako Ekinbide Etxeak (TEE-CIT) antolatuta, Abesbatzen Europako Sari Nagusia jokatu da Usabalen. Final handiaren berri emateko, aurkezpena egin zuten atzo Jokin Bildarratz Tolosako Alkateak, Ana Arretxe, TEEko lehendakariak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura zuzendari Imanol Agotek eta Jesus Mari Alkain Kutzako ordezkariak. Denera, 200 abeslari inguruk hartuko dute parte lehiaketan. Bost estatu ordezkatzuz sei abesbatza ariko dira lehian.

Aurtengoa, Tolosan jokatzeko den hirugarren aldia izango da. Izan ere, 93an eta 2000. urtean ere, eskualdean jokatu zen Sari Nagusia. Bestetik, oraingoan, Jokin Bildarratzek aipatu zuen bezala, «750. urteurrenaren oipakizunen kontestuaren baitan sartuko da jardunaldi hau». Ekitaldiaren antolatzaileek esan zuten, «pena bakarra Leidorren egin ahal ez izana da, baina Usabalek ere aukera asko eskaintzen ditu eta ikusgarria izango da hemen ere». Bildarratzek azaldu zenez, «gutxiagatik ez da posible izan, azken momentuan, eserlekuak jartzeko garain arazotxo batzuk sortu dira, eta ondorioz lanak ezin izan dituzte oraindik bukatu. Baina uztailaren erdialderako prest egongo da».

Honekin batera gaineratu zuten luxuzko ekitaldi bat izango dela Europako Sari Nagusia bertara oso abesbatza onak eta jende garrantzitsua bilduko baitira. Horren adibide, kulturari atxikimendua eta babesa emanez, parte hartuko duten abesbatzen herrialdeetako



Osloko (Norvegia) Schola Cantorum, Tolosako 37. Abesbatza Lehiaketaren irabazlea. I. TERRADILLOS



Utah-tik (AEB) iritsiko da University of Utah Singers taldea. HITZA

alkateak etorriko dira, eta baita Euskal Herriko zenbait politikari ere.

Sei txapelketen ondorio

Partaideen lana epaitzen duten pertsona famatuak ospeagatik eta aukeraturako abesbatzen kalitateagatik, beraien garrantziagatik ezagunak diren sei

honetan. Hau, modu birakarian, urtero herrialde haueko batean jokatu da. Iaz, Varnan (Bulgaria) jokatu zen, eta datorrena, berriz, Arezzo (Italia) izango da.

Sari banatzaile berezia

Hemezortzigarren edizio honetan, Europako Parlamentuko lehendakaria etorriko da lehen saria ematera. Arretxek azaldu zuen bezala, «asko kostatuta», baina lortu dute lehendakariak bere babesa ematea, eta saria banatzaile hona etortzea. Honek, joan den 12 urteetan egiten den bezala, Nestor Basterretxeak diseinatutako trofeoa emango die garallei.

Ana Arretxe TEEko lehendakariak azaldu zuen bezala, final handi honetan ematen den sariak «ekonomikoki ez du balio handia». Irabazleak lortzen duena, batik bat, «ohorea eta ospea» da. «Munduko abesbatzarik onena izatea da lorpena».

DATUAK ▶

Lekua. Usabal kiroldegia.
Noiz. Hilaren 17a, 17:00etan.

Sarrera. 20 euro. Egunean bertan edo lehenagotik TEE-CITen eros daitezke sarrerak.

Parte-hartzaileak.

- ▶ Bilkent University Youth Choir, Ankaratik (Turkia) etorria .Barnako Lehiaketan irabazi zuen.
- ▶ University of Utah Singers, Salt Lake City-tik (AEB) etorria. Frantziako Txapelketan irabazi zuten.
- ▶ Victoria Chamber Choir. Budapestetik (Hungaria) dator. Eta Gorizian (Italia) irabazi zuten.
- ▶ Cantemus Children's Choir. Nyiregyhazatik (Hungaria) dator, eta Arezoko (Italia) Txapelketan irabazi zuten.
- ▶ Schola Cantorum taldea. Oslotik (Norvegia) dator, eta Tolosako 37. Abesbatza Lehiaketa irabazi zuten.

Epaimahaia

Zazpi pertsonak osatuko dute epaimahaia. Hauek, denak ere, nazioarte mailan izen handia duten musika adituak izango dira. Jordi Casas kataluniarra izango da mahaiko zuzendari. Bestetik, Mauro Chiocci (Italia), Marin Chonev (Bulgaria), Roberto Gabbioni (Italia), Richard Safir (Frantzia), Javier Busto (Euskal Herria) eta Mate Szabo Sipos (Hungaria) ariko dira berarekin, saioak epaitzen.

Parte-hartzaileei saioa prestatzeko garaian jarri zaizkien blidintza bakarrak denboraren eta barietatearena izan dira. Hau da, talde bakoitzak abesteko 20 minutuko tartea izango du. Lehen 30 minutuko emandialdia eskaini zezaketen parte-hartzaileek, baina antolatzaileen esanetan, «luzeegi egiten zen»; horregatik, aurtengo denboran murriztea erabaki da. Bestetik, abesbatza bakoitzak aukeraturako abestiek autore ezberdinarenak izan behar dute. Batzuetan gertatu izan baita talde batek estilo edo autore berdinen kantak abestea emandialdia osoan. Eta hau ekitidiko asmoz, eta politago egiteko, baldintza hau jartzea erabaki dute.

iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK

Haur eskolak. Haurren zaintzaile eta hezitzaile postuak bete behar dituzte. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Hurrengo deialdiak udaletarako eta ikastetxeetarako. Informazioa doan: 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak.

Beasain, Bergara, Soralue, Mutriku, Zizurkil, Mendara, Anoeta. Udalek administrari laguntzaile postuak bete behar dituzte. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Bezeroen arreta. Aireportuetarako

plazak libre. 943 31 37 82.

Gidariak. Eusko Jaurlaritzarako eta udaletarako behar dira. 943 31 37 82.

Udalak. Lorezainak, elektrizistak, iturginak, administrari laguntzaileak, atezainak. Udaletarako postu horiek bete behar dituzte. 943 31 37 82.

Sukaldariak. Sukaldariak eta sukaldeko laguntzaileak behar dira egoitzea, eriebe eta ikastetxeetarako. 943 31 37 82.

Lanpostuak. Igeltsero, elektrizista, iturgin, pintore lanpostuak. Udaletarako plazak libre.

943 31 37 82.

Gipuzkoako Foru Aldundia.

Sukaldari laguntzaileak, obra zaindaria, gidariak, zaintzaileak, basozainak, laborategi teknikariak, garbitzaileak behar ditu. 943 31 37 82.

JUANTXO ZEBERIO ▶ SAN JOAN KONZERTUKO ZUZENDARIA

«Jendeak ametsetara hegan egitea lortuko dugu, ingurune magikoan»

San Joan Kontzertua zuzenduko du Zeberio, gaur, 22:30ean, Zumardi Handian

NOELIA LATABURU

Azkenean heldu da Tolosaren-tzat berezia izango den eguna. Bai, berezia, izan ere, San Joan kontzertuaren emanaldia «ikaragarria» iragarri dute gaurko. Gogoan izateko eguna da, beraz, ez bairik gabe. Herritar nahiz kanpotar guztiak gonbidatuta daude ikuskizunarekin gozatzera, gaur, 22:30etik aurrera, Zumardi Handiko paraje paregabean. Zuzendaritza lanetan Juantxo Zeberio jardun du, eta HITZAREKIN solasean aritu da.

Zer ikusteko aukera izango dute bertaratuek?

Bi elementu osatuko dute nagusiki biharko [gaurko] ikuskizuna; batetik, eszenikoa, zein-an osotasunean ingurumenerekin jolastu nahi izan dugun. Jendeak ezusteko ikaragarria jasoko du Zumardi Handira daraman zubia igaro bezain pronto. Musika entzun aurretik, naturan murgilduta izango da jendea. Batetik, alderdi musikala ere asko zaindu dugu.

Eta nola izango da musika?

Hemen Tolosako talde ezberdinek ikuskizunaren muina izatea nahi izan dugu. Hala, honako taldeek osatuko dute kontzertua: Tolosako Musika Banda, Hodeiertz abesbatza, Tolosako Orfeoia, hiru haur abesbatz (Ereskitxo, Laskorain eta Hodeitruk), Udaberri dantza taldea, Katixa Pereaeren udal dantza tailerraren eta Izaskun Arriola dantza eskolaren eskutik, dantza jazzeko dantzariak, Mulambo perkusio taldea, Tolosako erraldioen konpartsa eta Tolosako Udal txistularien banda.

Eta, egitarauaren aldetik?

Aipatzekoa da ohiko kontzertuagandik haratago joan nahi izan dugula. Entzungai izango den guztia berriak da. Guztira 17 pieza eskainiko ditugu, eta hauetako batzuk doinu ezagunak izan arren, moldatu egin ditugu. Jendea harritu egingo da, hortaz.

Ahots ezagunak ere izango dira.

Halaxe da. Maddi Oihernat eta Arantxa Irazusta ariko dira. Honen batera, Imanolen bi kantuen bertso berriak entzungo dira, eta Karlos Linazasoren hitzak daramatzen bi abesti berri, *Musu bat* eta *Beti da orain*, hain zuzen ere.



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

IKUSKIZUNA

«Bi elementu zaindu ditugu ikuskizun erakargarria lortzeko: eszenografia eta alderdi musikala»

Elementu gehiago barneratu dituzue.

Bai, oso ondo moldatu gara lanean, gure haserrelditxoekin, noski. Nirekiko erantzuna oso ona izan da eta guztiak profesionalak bailiran egin dute lan. Erakundeen aldetik, aldarrikapen baterako aprobetxatu nahi dute; izan ere, talde hauek jaso-

ZUZENDARITZA

«Ardura hartzeko dudak izan nituen, inor ez baita profeta bere herrian, baina taldeen erantzuna aparta izan da»

tzen duten baino babes gehiago izan beharko lukete.

Eta, zein izan da zehazki zuk burutu duzun lana?

Muntaiaren aldetik, guztien lana koordinatzeko ardura izan dut, nahiz eta teknikari eta arduradun asko dago atzean lanean. Lan gehiena eman didana musika da; izan ere, abesti guztiak nik egin ditut.

Lan handia egingo zenuen, ziur.

Oso lan gogorra izan da. Iazko udan sortu zen proiektua eta urritik aurrera lan handia zuzenatu du. Hala ere, nire anaia Migelek lagundu nau. Gainera, profesionalak ez diren musikariekin aritzea zailagoa da.

Eta orain azken ukituak ematen?

Bai, asteartean egin genuen entsegu orokorra eta gaur [atzo] iluntzean argiztapen, eszenatoki eta xehatasun guztiak egingo dugu proba. Guztia prest dago ezustekoren bat-edo ez badago, behintzat. Ea eguraldiak laguntzen duen, hori da gure kezka orain.

750. URTEURRENA

«Berezia izango da urteurrenean, baina tolosarismoarekin apurtu nahi izan dugu; guztiontzat izango da»

Sorpresaren bat gorde al duzue eguneroko?

Sorpresa bere horretan izango da, orokorrean, Zumardi Handia bezalako inguru magiko batean jendeak ametsetara hegan egin dezan lortu nahi dugu. Baina ez dugu ezer gorde.

Tolosaren 750. urteurrena dela eta, bereziagoa izango da.

San Joan kontzertua bezala dago planteatuta biharko [gaurko] emanaldia, baina ez du aurreko urtekoekin zerikusirik. Urteurrenean bereziagoa izango da.

Bereziki tolosarrentzat zuzendua al dago?

Hain zuzen ere, ideia honekin apurtu nahi izan dugu. Tolosarismoa alde batera utzi eta unibertsalizazio aldera jo nahi izan dugu. Tolosar kutsua noski izango dela, inguruak berak emango baitio, baina kanpotik datorren ikusleak berdin-berdin gozatu du. Benetan, oso berezia izango da bertaratzen den ororentzat.

ERLIJIOA ▶

Parroki Eguna biharkoan, Andre Mari parrokiarian

Egunaren harira, meza berezia egingo dute, 11:00etatik aurrera, parrokiarian

ERREDAKZIOA

Biharkoan Parroki Eguna ospatuko dute Andre Mari parrokiarian. Hori dela eta, meza berezia izango da, parrokiarian bertan, 11:00etatik aurrera. Elizkizun honetan katekesiako 6. mailakoek Bataioko aginduek berriroko dituzte eta Atsedena taldean sartu. Mezan, urteetan apaiz laguntzaile izan den Joan Jose Garmendiari agurra egingo diote. Meza ondoren, berriz, elkarrekin bilduko dira eguerdian, areto nagusian. Parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebexa: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

HERNIALDE ▶ ERAKUSKETA



Teknika inpresionista erabiltzen du Lopezek paisaiak eta kaleak irudikatzean. HITZA



Itasertza gustuko du Lopezek bere margolanak egiterakoan. HITZA

Paisaiak, ukitu inpresionistarekin

Gregorio Lopez ordiziarrak olioiz egindako hamazazpi margolan erakusten ditu Hernialdeko Ostatuan

IMANOL GARCIA

Hernialdeko Ostatuan erakusketak berritu dute, eta oraingoan Gregorio Lopez ordiziarraren margolanak daude ikusgai. Olioiz egindako hamazazpi koadro ikusi daitezke, eta hala nahi izanez gero, baita erosi ere.

Lopezek HITZARI azaldu dienez, «paisaiak margotzen ditut nagusiki, lehorrekoak eta itsaertzeko paisaiak». Gai horiek nabarmentzen dira Ostatuan ikusgai dauden koadroetan.

Berezkoa omen du paisaiak margotzeko erabakia: «Menditik ibiltzen naizenean, Larraitz inguruan eta, natura ikusten dut bere osotasunean, eta horrek margotzera bultzatzen nau». Beste gai batzuk ere jorratzen ditu erakusketan, kaleak eta baita jendea ere, baina pasaisaiaren barnean. «Ez dut gustuko aurpegiak margotzea. Ez dakit zergatik, baina gehiago gustatzen zait paisaiak margotzea».

Ordiziarraren estiloa inpresionismora hurbiltzen da.

«Teknika hori gustuko dut. Hernialden jarri ditudan koadroetan ez dut hainbeste erabailtzen, ordea. Etxean ditudan beste batzuetan inpresionistagoak dira», dio margolariak.

Betidanik margotu du Lopezek, baina egun, jubilatua denetik, denbora gehiago du bere afizoan jarduteko. Leku ugarietan erakutsi ditu bere lanak, «Baionatik hasi eta honaino». Sariak ere jaso ditu, eta berriki Gipuzkoako Elkarte Artistikoak ematen dituen sarien baitan hirugarrena jaso du.

HEZKUNTZA ▶

Ikasturteari amaiera ematen joateko festak

Zizurkilgo Otañon, Villabonako Flemingean, eta Tolosako Hirukiden eta Samaniegon

ERREDAKZIOA

Tolosako Hirukide eta Samaniego, Zizurkilgo Pedro Mari Otaño eta Villabonako Fleming ikastetxeek gaur ikasturte amaierako festa egingo dute.

Hirukiden 11:00etan eukaristia egingo dute; 11:45ean, instalazio berrien inaugurazioa, 12:00etan puzgarriak, tailerrak eta kirolak ikasleentzat, patata tortilla lehiaketa gurasoentzat, eta argazki emanaldia guztientzat; 13:00etan, judo eta gimnastika erritmiko erakustaldia; 14:30ean, bazkaria; 16:00etan, mus txapelketa, puzgarriak txikiak, Poxpolo eta Mokolo eta herri kirolak; 17:00etan, Txotx antzerki taldea; 18:15ean, zezen-plazan San Joan sua; 19:30ean, buruhandiak, eta 20:00etan, dantzaldia.

Samaniegon, berriz, 12:00etan, ikasleen emanaldiak; 13:00etan, umeentzako jola-

sak: ohe elastikoak, handientzako eta txikiak puzgarriak, futbolin erraldoia, arkitiraketa, pinn-tailerra, boomerang-tailerra eta lobo-flexia-tailerra; 14:30ean, bazkaria; 15:30ean, umeentzako jolasak (puzgarriak, tailerrak...) eta kirol jokoak; 16:00etan, DJ Bull; eta 18:00etan, txokolata-darekin, bukaera.

Otaño eskolan, 10:00etan, alebilen futbol partida; 10:30ean, haur jolasak, 11:00etan, benjaminen futbol partida; 12:00etan, ikasleen emanaldia; 14:00etan, bazkaria; 16:00etan, puzgarriak, gazteluaren jokoa, ludoteka...; 16:30ean, mus txapelketa; eta 17:00etan, elkarren arteko jokoak.

Fleming eskolan, 11:00etan, ikasleen emanaldiak; 12:45ean, bertso emanaldia; 13:30ean, bazkaria; eta ondoren, gurasoek antolatutako puzgarriak, motoak, tailerrak, merienda eta musika.

EHNA ▶

Villabonan EHNA egiteko aukera izango da gaur

Amasa-Villabonako Bai Euskal Herriari ekimenak EHNA tramitatzeko deialdia egiten du. Nahi dutenek, gaur dute aukera, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Hiru argazki, errolda agiria eta 15 euro eraman behar dituzte. Bestalde, Tolosaldeko Bai Euskal Herriari ekimenak deia egin du Balmasedan (Bizkaia) bihar egingo den Naziotasun Egunean parte hartzea.

ANOETA ▶

Jubilatuentzat bazkaria festen baitan

Alkartasuna Biltokian bazkaria antolatu dute jaien baitan Korpus egunerako. 15 euro balio ditu eta izena eman daiteke asteartera arte. 35 laguntzako lekua izango da. Gehiagok izena emanez gero, hurrengo egunean beste bazkari bat egingo litzateke. Bestalde, 12 euroko afari berezia eskainiko dira gaur eta datorren ostiralean eta larunbatean. Ogitartekoak ere eskainiko dituzte.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

2006 Harpidetza kibraketa kanpaina

- ▶ egunero 8 orrialdeko kalitateko egunkaria, euskaraz
- ▶ uneoro informazioa eskura www.tolosaldeko-hitza.info



txartel berriarekin abantailak!
beherapenak agurretan, eskeletan
eta iragarki laburretan
besteak beste



KONTU KORRONTE bidez ordainduaz
EROSOAGOA eta 2 ZATITAN
ORDAINTZEKO AUKERA

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□

egunero 0,18 zentimoren truke etxean

ORENDAIN ▶ KIROLA

Gipuzkoako sega finalerdia jokoan, bihar

Zubeltzu baserriaren ondoko zelaian hiru segalarik moztuko dute belarra

NEREA URBIZU

Gipuzkoako Sega Txapelketa finalerdi bat igandean egingo da. Orendainen izango da A izena jarri dioten kanporaketa. Bertan, Amasako Andoni Zuriarrain Iturbe, Gazteluko Joxe Gabirondo Arrate eta Andoni Goikoetxea Gabilondo izango dira aurrez aurre. Segalari trebeak, hortaz, Orendainen.

Bihar, 18:00etatik aurrera hasiko da proba. Orendaingo Zubeltzu baserriaren ondoan dagoen zelaiko belarra moztuko dute segalariek. 30 minutuz aritu beharko dute belarra

mozten, eta kilo gehien mozten dituzten lehenengo biak, finalera pasatuko dira.

Hurrengo finalerdia Zizurkilan egingo da, hilaren 18an. Horretan ere, beste hiru segalari ariko dira. Hain zuzen ere, Mikel Aranalde gazteluarra, Andoni Dorronsoro ikaztegietakoa eta Asteasuko Mikel Alkorta izango dira belarra mozten kanporaketa horretan, nor baino nor.

Honetatik ere, beste bi segalari pasatuko dira Oartzunen jokatu den txapelketaren finalera. Hilaren 25ean izango da azken proba hau.



Segako probak gero eta arruntagoak dira gure artean. ESTI EZEIZA

PROBA

Segalariek 30 minutuz moztu beharko dute, eta kilo gehien mozten dituzten lehenengo biak joango dira finalera

Orendainen bigarrenaz

Iaz ere Orendaingo larreetan egin zen probaren bat. Jesus Ormaetxea Urki segalari ospetsuak izan zuen zeresana horretarako. Federazioari ondo irudituz zitzaion, eta bai antolakuntza aldetik eta bai baldintza teknikoak ere onak zirenez, han posible egitea zela ikusi zuten. Proposamenari orduan Udalak baiezkoa eman zion. Orendaingo Udalak hartzen ditu bere gain gastuak.

Bihar, 16:30etik aurrera, Orendaigera doazen errepideak moztu egingo dituzte, eta aparkatzeko proba egingo den zelaitik 300 metrotrara egin ahal izango da. Horretarako, bertan jendea izango da laguntza emateko eta lan horiek errazteko asmoarekin.

ALEGIA ▶ HEZKUNTZA



Plisti-plasta, mama... ura eskuetan hartu nahian

N. Urbizu ▶ Uraren Eguna ospatu zuten atzo Alegian, San Juan eskolan. Haur Hezkuntzako ikasleak patioan jarritako igerilekuxtoetan freskatu egin ziren, atzoko egun eguzkitsu eta sargorrian, 30 graduen pean egon baitziren. Laugarren urtez antolatuta dute Uraren Eguna eskolan. Bertan, igerilekuxtoez gain, plastikozko ahateak kaina-

bera batekin hartzeko jolasa egin zuten, eta baita panpinak uretan bainatu eta haien arropak garbitu ere. Ondoren, eguzkiarekin lehertzeko arropak zintzilikatu egin zituzten. Bestalde, bainatzeko aukerarik ez zutenentzat ere aukerak izan zituzten, puntzoi batez urez betetako puxiak lehertuz. N. URBIZU

ALBIZTUR ▶

Kultur Astea bukatzeko, bihar, pilota partidak

Biharko ekitaldiekin bukatu egingo da aurtengo Albizturko Kultur Astea. 12:00etan eskuz binakako pilota partidak izango dira. Albizturko Telleria-Telletxea Narrarte-Galartzarekin lehiatuko dira. Bigarren partidari Belloso-Zapirain ariko dira Renobales-Oteizaren aurka. Maila altuko bi partida borrokatu izango direla uste dute pilotazaleek, hainbat txapelketatan dabiltzanak baitira, eta jardunaldi politak egiten ari dira, jubenil mailan eta senior mailan. Arkaitz Elkarteak eta Albizturko Udalak antolatuta dute egitaraua.

ALTZO ▶

'Uda 2006' antolatu nahi dute herrian

Aurten ere haur eta gaztetxoen antolatuta Uda 2006 antolatu nahi dute Altzonen. Hilaren 26tik uztailearen 21era izango da. Horretarako deialdia luzatzen diete udalekoek, bai partaide izan nahi duen haur eta gaztetxoei eta baita begirale izan nahi duten helduegokie ere. Interesa dutenek udaletxean izena eman behar dute hilaren 13a baino lehen. Kontuan izan beharrezko berezitasun batzuk hauek dira: haur eta gaztetxoak 3 urtetik 14ra bitartekoak izango dira. Begiraleak aukeratzekoan esperientzia kontuan hartuko dute.



Bridge
Lizentziatutako

**UDAKO IKASTAROAK
UZTAILA 2006**

Haur, gazte eta helduentzat

FRANTSESA & INGELESA

FIRST eta ADVANCED

azterketak prestatzeko ikastaro trinkoak

Talde txikietan • Orduetgia taldeen arabera

Pablo Gorosabel 2 - 1A • 20400 Tolosa
943 65 00 70 • 680 222 526
www.bridge2005.com • bridge2005@bridge2005.com

GUTUN@K ▶

Gehiegikeria?

Gaur duela hogeita sei urte, azken aldiz bizirik ikusi zuten nire anaia. 22 urteko euskal errefuxiatu politikoa, Joxe Migel Etxeberria Alvarez, *Naparra*, bahitu, hil eta desagertarazi izana hartu zuen bere gain Batallon Vasco Españolek.

Itxaropen garaiak bizi ditugu. Guztientzat izan daitezela. Bere gorpuzkinak itzultzeko eskaera gehiegikeria al da?

ENEKO ETXEBERRIA
ALVAREZ ▸ IRUÑEA

LIZARTZA ▶

‘Naparra’-ren
desagerketaren
26. urteurrena
beteko da bihar

Lizartzako Igarola Bekoa baserrian egingo diote bihar omenaldia, 12:00etan

I. TERRADILLOS

26 urte beteko dira bihar Joxe Migel Etxeberria Alvarez *Naparra* euskal errefuxiatu politikoa bahiketa, hilketa eta desagerketa gertatu zirenetik. Hori dela eta, urterto egiten duten moduan, Lizartzako Igarola Bekoa baserrian, bere monolitoaren aurrean, omenaldia egingo dute bihar, 12:00etan, txalapartariekin, dantzariekin, bertsolariekin eta dultzaineroekin.

1980ko ekainaren 11n bahitu zuenetik, ez du *Naparra*-ren berririk haren sendiak. Batallon Vasco Navarrok Perret anaien taldea izan zen ekintzaren egilea, gerora bere gain hartu baitzuen desagerketa.

IBARRA ▶ KULTURA

Festarik festa eta
dantzaz dantza

Beasainen, Izaskunen eta Uzturpeko jaietan eskaini dituzte saioak Alurr dantza taldeak; udan ere emanaldi ugari dituzte



Uzturpe ikastolako jaietan txikiak ere aritu ziren. HITZA



Ikastolako jaietan, 12 urtekoen saioa une bat. HITZA



Beasaingo jaietan musikariekin eskaini zuten saioa. HITZA

IÑIGO TERRADILLOS

Gure inguruko herrietako jaietan, nahiz hain gertu ez ditugunetan ohikoa bilakatzen ari da Ibarako Alurr taldeko dantzarien emanaldiak ikustea. Izan ere, dantza taldeko eta dantza eskolako kideen kopuruak gora egin du, eta horrekin batera gero eta saio gehiago eskaintzen dituzte, ikasleek ikasitakoa jendaurrean erakusteko aukera dutelarik. Hala, azken egunetan hiru leku desberdinetan egin dute dantza Alurreek: Beasainen, Izaskunen eta Uzturpe ikastolako jaietan.

Urterto hartzen dute parte ikastolako jaietan 4 eta 12 urte artekoak. Ordubete inguruko saioan, 2 dantza emanaldi eskaini zituen talde bakoitzak, eta aurten estreinakoz mutilena ere aritu zen. *Sagar dantza*, *Alpargata*, *Uztai*, *Bolant*, *Agurra*, *Arin-Arin* eta *Fandangoa* dantzatu zituzten, besteak beste. Larunbatean izan zen jaia, eta handik bi egunera, astelehenean, beste hitzordu bat zuten, Izaskungo jaietan. 4 eta 6 urte artekoak aritu ziren bertan, eta eguraldia lagun, emanaldi «duzeagoak eta aberatsagoak» eskaini zituzten. Gazte txoak «oso gustura» geratu ziren, eta gurasoak ere hala geratu zirela espero dute. Arduradunek irakasleek urte osoan egindako lana eskertu nahi izan dute.

Beasaingo jaietan dantzatzeko gonbita, Ostadar dantza taldearen eskutik jaso zuen Alurreek; Iparraldeko, Nafarroa Behereko, Santurtziko (Bizkaia) eta Ibarako taldearen artean, denera 150 dantzari aritu ziren kaleetan barrena goizean eta taula gainean arratsaldean. Edu Muruamendiarazek eta irakasleek prestatutako koreografiak izan ziren ikusgai ibararren eskutik. Alurreek bereziki musikarien lana eskertu nahi izan du Beasaingo saioan.

Etenik gabe

Ibarrarrek ez dute etenik egiteko asmorik udan. Hilaren 17an Gazte Festetan, 18an Anoetan, 25ean Tolosaldeko sarraketa, 28an Alizon, eta abuztuan Beasainetan eta Ibarren izango dituzte saioak.

BERASTEGI ▶

1966-1970
urteetan
jaiotakoaren afaria

Datorren hilaren 17an Adu-nako Aburuza sagardotegian 1966tik 1970era bitartean jaiotako berastegiaren afaria egingo dute. Izena eman nahi duenak 657 73 12 99, 676 92 97 87 edota 943 67 21 11 telefono zenbakietara hots egin beharko du; bihar da azken eguna horretarako.

IBARRA ▶

Gorritira irteera
antolatu du bihar
Haitzetan Rajuk

Haitzetan Raju mendi taldeak, urteroko ohiturari jarraituz, Gorritira irteera antolatu du bihar. Aurten, gainera, berezia izango da irteera, Eneko Aritzaren Lagunak elkarrekin *Sua* filmarako grabaketa egiteko baliatuko baitu. 09:00etan da hitzordua, Ibarako plazan, eta hiru bat ordutan iritsiko dira Gorritira. Han, zikiri jatea egingo dute. Eta arratsaldean, erreketak baten eszena grabatuko dute han bertan. Filman eta irteeran parte hartzeko deia egin dute antolatzaileek. Izen-ematea, Ibarako Atari eta Zubiaurre eta Tolosaldeko Denak tabernetan edota 652 71 58 00 telefono zenbakian.

ASIA ▶

Udaleku irekietan
izena emateko
epea zabalik

Aurten ere, Belauntzako, Leaburu-Txaramako, Orexako eta Gazteluko Udaleku irekietan izena emateko epea zabalik da. Uztailaren 3tik 28ra izango da Belauntzan, Gaztelun eta Orexan, eta ekainaren 26tik uztailaren 28ra bitartean, Leaburu-Txaraman. Belauntzan, 10:00etatik 13:00etara izango da Kultur Etxean; Gaztelun, 10:00etatik 13:00etara herririko elkarteetan; Leaburu, gazte gelan eta Txaraman, kultur-osasun gunean, 10:00etatik 13:00etara; eta Orexan udaletxe gunean, 15:00etatik 18:00etara. Eskulan, jolas eta joku desberdinak egiteaz gain, egun bereziak ere izango dituzte gazte txoak. Izena eman nahi duenak hilaren 19ra bitartean ahaliko du, dagozkeen udaletxeetan.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

ARAMBURU

Alokatzeko.
Pisuak, Tolosan, Anoetan eta Lasarten.
Alokatzeko, Garajeak, Baxiler Zaldibian,
irekiak eta itxiak.

Alokatzeko.
Lokalak, Fueros eta Laskorain kalean,
Salgai (Tolosa), Pisu Belate kalean, 75 m²,
Salgai (Tolosa), Pisu San Frantzisko, 17,
140 m². Garajea aukeran.

Salgai (Tolosa).
Pisu Laskorain kalean, 5.-a.
Salgai (Tolosa), Pisu Laramendi kalean,
112 m². Igogailuarekin.

Salgai (Garajeak).
Tolosako Leidorren eta Ibarren, karabana
sartzeko moduko garajea.

Salgai (lokalak). Tolosan Kale Nagusian.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

TOLOSALDEKO
HITZA.INFO

Eztabaida. «Urtebete pasabito igaro da Tolosaldeko Gerontologikoa itxi zutenetik. Gerontologikoa aldeko plataforma irtenbide bila ari da geroztik. Orain Udalak proiektu berri bat aurkeztu du. Zein iritzi duzu guztiaren inguruan?» Eman zure iritzi gairi buruz!

ARESO ▶ SOKATIRA

Berriei aukera emanez, gaur azkena 680en

Martirtun, gaur erabakiko dute pisu horretako txapela; Nuarbe aurreneko

JAIONE ASTIBIA

Gaur, 17:00etatik aurrera, Erandioko Martirtu auzoan jokatuko dute, Euskal Herriko Lur Gaineko Sokatira Txapelketan, 680 kiloko hirugarren eta azken saio puntuagarria, eta beraz, erabakiorra.

Goiherri taldeak etxean jokatu du duelarik, Aresok horrekin izanen omen du lehiaz handiena. «Egunean 3. eginen bagenu pozik geldituko ginatke», esan zuten atzo. Taldeko kide berriei tiratuko dute: «Txapelketetan ari daitezkeela sinesten ari dira; aldea egiten ari gara, batera tiratzen ikasten- eta eta franko ongi», azaldu zuten. Hurrengo asterako prest egon nahi dute, pisu tikiagorako, berena emateko.

Gaurko, Nuarbe dago oraingoz sailkapen buru, aurreneko bi saioetan garaile aterata; gaur bigarren eginda ere, pisu

680 KILO ▶

SAILKAPENA

1. Nuarbe: 12 puntu.
2. Gaztedi A: 10 puntu.
3. Goiherri: 8 puntu.
4. Areso: 5,5 puntu.
5. Mutriku: 4,5 puntu.
6. Gaztedi B: 2 puntu.

ARESO TALDEA

Soka. Sagastibeltza, Iantzi, Arbeo, L. Otermin, Jon Otermin, Jabier Otermin, Sukuntza eta Arraras.

Aldaketarako. Baraibar.

honetako txapela ziurtatuta luke, iaz Gaztedik kendu ziona. Eta, aurrten ere, hortxe du talde bizkaitarra, borrokarako prest, 10 punturen jabe, 2 puntura. Hauek saioa irabazi eta azpeitiarrek non eta bitxikeriaren bat gertatzen ez den, ordea, erabakixea dago lehia.

LEITZA ▶

Gaur hardcore doinuak Torrean zuzenean

Gaur gauerditik aurrera, Torrean tabernan hardcore estiloko musika entzungai izanen du zuzenean, bertara joaten denak: Tanatorio taldeak kontzertua eskainiko du. Izen bitxi hori duen talde hau Iruñea aldekoa da. Sarrera borondatearen truke eskuratu eta «ahots urratuz» abesten duen taldea entzuteko aukera, beraz.

LEITZA ▶

Katekesiko bukaerako festa gaur dute

Ikasturtean zehar katekesia ikasten aritu diren gaztetxoek eta beren erakusleek bukaerako festa egiten dute gaur. Hala, 10:00etan hasi eta goiz guztian zehar askotariko ekintzak dituzte egitekoak: eliz ataririk aterata, bidean han-hemen jinkana joko desberdinak eginez, Santa Krutz ermita aldera joanen dira. Eta hara iritsitakoan, berriz, hamaiketakoak eginda, festatxo bat egiten dute, ikasle eta irakasle eta gurasoek ere.

LEITZA ▶ FUTBOLA



Aurrera taldea Ligako azken partiduan, zaletuekin batera. J. ASTIBIA

Igoerako lehendabizikoa, biharkoa Aurrerarentzat

Mendi izanen du aurkari, talde «indartsua»; Arkixkileko azken partidua denboraldian

J. ASTIBIA

Nafarroako Lurraldeko Lehen taldearen aurkako maila, Gorengotena, atek zabalik dago. Ate horren inguruan, zortzi talde sartu nahian. Hauetatik lauek lortuko dute, hain justu asteburu honetan eta hurrengoan emaitzik onenak lortuko dituzten lauek. Leitzan, denboraldi osoan Aurrerarekin ibili direnek, noski, horietako bat Aurrera izatea nahi!

Eta bidean da. Izan ere, bihar jokatu du goerako azken bi partiduetako aurrenekoa, eta Arkixkilen egitea egokitu zaio, kanporaketako ligaxkan Mendi

taldea, aurkari egokitu zaiona, aurretik gelditu zen eta. Horrela, bada, bihar 18:00etan hasita, aurrerako denboraldian Arkixkilen Aurrerak jokatu duen azken partidua ikusteko aukera. Partidu garrantzitsua, ezbairik gabe Mendiren aurkako hau: igoera dago jokoan.

Mendigorriko taldea «indartsu» dago; sailkapena gora irabazita lortu du. Baina, etxeko taldea ere «animoz beteta» dago HITZARI baieztatu diotenez: «Gainera, jokalaria guztiak ere punta-puntuan gaudu. Eta orain egin behar dugu egin beharrekoa». Zaletuei ere bertaratzeko dei egin diete.

GUTUN@K ▶

AHT Zizurkil hondamendira eramango duen proiektua da

AHT proiektuak Zizurkilgo 9 baserri desagertzea ekarriko du. Eta nekazal-lur eremu handia betiko galdu eta herrian jasan ezingo den zarata iraunkorra eragingo du. Herria alde batetik bestera gurutzatuko

du: bi zubi erraldoi eta Urkamendi mendiko dotorea tunel batez zulatuko du batetik bestera, horrela, ur akuiferoak txikituko eta desagertuz.

Hau guztia gertatuko da Zizurkil, beste herri askotan bezala; ingurumenaren iraunkortasunaren udal prozesua (Agenda 21) abian dagoen momentu berean. Udaletxean, hipokresiaz ari dira agintean dirauten EAJ/PNV eta EA alderdi politikoak!

Ingurumenaren iraunkortasuna dute ahoan, eta beraren txikizioarekin izugarriko negozioa egitea dute helburu bakarra. Berdin zaie, baserriak galdu, herria betiko baldintza txarretan uztea, beti ere beraien negozioak ondo ateratzen badira. Iraunkortasunaren demagogia eginez, AHT gure herriak inoiz egungo izaera berreskuratzetik izango ez duen proiektua da.

Azpiegitura erraldoi honek

inoiz xahutu den diru publiko gehien xahutzea dakar. Denon dirua dena enpresari eta politikari gutxi batzuen poltsikora joango da.

Ez dugu beste aukerarik! Astakeria hau geldiarazi behar dugu, denon artean! Injustizia hau inola ezin da onartu, ez Zizurkil, ez eta Euskal Herriko beste inongo herritan ere!

Horretarako, gure haserre eta desadostasuna azaltzeko, lehenengo aukera dugu, gaur,

Donostian. Guztion parte-hartzeak ezin bestekoa izan behar du. Gure eskuetan dago gure herria txikituko duen proiektua gelditzea. Azken urteetako apusturik arrikutsuena dugu jokoan. Eta irabazi egin behar diegu, eta AHT gelditu egin behar dugu!

AHTrik ez, trenbide soziala bai!

JUAN MANUEL ERASUN
(ZARATEAITZ PLATAFORMAKO
HAUTETSIA) ▶ ZIZURKIL

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak


Gipuzkoan 50.000 etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko ekainaren 10a, larunbata ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



berorera **22** hotzera **20**

BIHARKO EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIK

Tolosa. Adinekoen Astea: 10:00etan, irteera azokara; 14:00etan, bazkaria Euskal Herria plazako gizarte zentroan; 18:00etan, meza; ondoren, 90 bete dituzten egoiliarrei omenaldia.

ERAKUSKETAK

Alegia. Maite Itsasoren margolanak. Hilaren 21a arte, Jubilatuen tabernan.
Ibarra. *Mundu bete kolore.* Angel Cuerdoren argazkiak. 16a arte, Kultur Etxean.
Tolosa. *Aterpeak.* Miguel Angel Oriberen eskultura erakusketa. Uztailearen 1a arte, Aranburu Jauregian.

JAIAK

Anoeta. Udalaren egitaraua: 09:00etan, IX. Eskuzko Pilota Herri Txapelketako finalak; 12:30ean, herriko artisten eta eskulanetako taldeen lanen erakusketaren inaugurazioa. Herri Borondatearen Aldeko Jaiak: 11:15ean, herriko plazatik kalejira Argindegiko atzeko zelaietara; 11:30ean, herri dema; 23:00etan, DJ Bull.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Areso, Goizuetza, F. Loidi Etxea, 112.
 Ibarra, Iturrioz, I. Euskal Herria, 3.
 943 67 09 15.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
 10:30-13:00. *Hitza* hegan magazina.

Goiko irrattia (107.0 FM)
 13:00. *Komerra* magazina.

▶ HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta irizien erantzukizunik.

Zabaldu ateak euskarari

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶ HITZA jasoko dela ziurtatzeko eta banaketa fintzeko bidean, ezinbestekoa da banatzaileek atariko giltzak izatea



Bi eskualdeetako hainbat puntutan utz ditzakete harpidedunek beraien atariko giltzak. HITZA

ERREDAKZIOA

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA aurtengo harpidedun kobraketa kampanian erabat murgilduta dago. Hemendik aurrera urteko kuota ordaintzen dutenek soilik jasoko dute etxean eskualdeko euskarazko egunkaria.

Horretarako, oso garrantzitsua da banatzaileek atariko giltzak izatea: batetik, euskarazko egunkaria etxeko postontzi guztietara iritsi ahal izateko eta, bestetik, banaketa azkarrago eta hobeto egingo dela ziurtatzeko. Dagoeneko harpidedun batzuek eman dute beraien atariko giltza. Baina badira oraindik utzi ez duten beste hainbat. Egunkaria garaiz, seguru eta baldintza onetan jasatzeko giltza behar dute banatzaileek.

Hala, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK hainbat puntu jarri ditu bi eskualdeetan harpidedunek beraien atariko giltza eraman ahal izateko: Anoetan, Izarti txokolategia; Iruran, Amets estankoa; Villabonan, Larrea kafetegia; Leitza, HITZAREN egoitza; Tolosa, HITZAREN egoitza; eta Alegia, Jubilatuen taberna.

Giltza uztearekin batera oso garrantzitsua da harpidedunaren datuak eta helbidea era argi batean ere adieraztea, identifikazio lana errazteko.

Harpidedunek abantaila ugari izango dituzte: beharpekin, zozketak... Hilaren amaieran, esaterako, harpidedun guztien artean bidai bat eta afari bat zozketatuko ditu HITZAK.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Arkaitz eta Nagore Balda Usandizaga (Alegia). Arkaitzek gaur 4 urte eta Nagorek bihar urtebete. Zorionak etxeko bi poxpolinei!



URTE ASKOAN

Eneko Etxeberria Irastorza (Tolosa). Gaur bi urte. Zorionak aita, ama eta anaia Asierren partetik.



URTE ASKOAN

Gaizka Mugika Aurkita (Abaltzisketa). 6 urte. Zorionak eta muxu pila bat denon partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAREN egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAREN egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

Harpidedunen txokoa

Aisialdi planik ez duzula? HITZAK aukera paregabea emango dizu

- 1 Bidaia zoragarri bat Tenerifera 2 lagunentzat
- 2 Luxuzko otordu berezia Tolosako Zumeta Jatetxean

Ez galdu aukera! Egin zaitzek harpidedun ordaintzaile!

PARTE HARTZEKO: Maiatzaren 30etik ekainaren 25era argitaratzen diren boko hauetako bat, zure datuekin bete eta bidali ondoko helbide honetara. **Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza • Araba etorb. 5 • TOLOSA**
 Ekainaren 26an irabazlearen izena HITZAn **ZORTE ON!**

Zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea.

1 TENERIFERA BIDAIA
 2 lagunentzat astebeteko egonaldia



LAUTREK
bidaia agentzia
 korreo kalea, 52 • TOLOSA
 Tel.: 943 67 39 99 - 943 67 39 21
 Faxa: 943 67 39 12
 zure neurritako bidaiak antolatzen ditugu

2 OTORDU EDERRA
 2 lagunentzako Tolosako Zumeta jatetxean



Berjaldegi Plaza, 2/g • Tolosa
 Tel.: 943 88 28 93

bete zure datuak

Harpidedunaren kodea.....
 Izena.....
 Abizenak.....
 Helbidea.....

 Herria.....P.K.....
 Telefonoa.....
 Peletronikoa.....